

## egunekoa

Lorena Gomez Mendez

(Santiagoko Unibertsitateko irakaslea)

# 'Prestige' hizpide dugunez...

**A**EBetara joan eta orain itsas produktuen lantegi baten jabe den galiziar batek proposamen bat egin zion Xuntari azaroaren 22an: marea beltzari aurre egiteko 120.000 metro babes sare bidaltzeko prest agertu zen; baita sei egun geroago beste 120.000 metro bidaltzeko ere. Halaber, berak ordainduko omen zuen hegazkinez eramateko gastua, Xuntak aukeratutako aireportuan. Baina gizon horrek ez du erantzunik jaso. 240 km sare ari gara, eta baztertutako beste askori gehitzen zaie: Holandak, Ingalaterrak, Frantziak, ELFk, Repsolek eta BPk eskainitakoak. Xuntak ez du erantzun ere egin.

Zergatik? Prentsa sail bateko ardura-dunak eman dit erantzuna: sare horiek hartzea marea Galiziarra hel zitekeela onartzea izango zen, eta horixe saihestu nahi zen hasiera-hasieratik.

Ubide, Bide eta Portu Ingeniaritzako Fakultatearen bitartez, bost aldiz —adi: bost aldiz!— eskaini zion Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak Xuntari programa moderno bat. Programa horri esker, itsas eta meteorologia datuak kontuan izanda, 72 ordu lehenago jakin daiteke norantz joko duen mareak. Britainia Handian, Alemanian, Holandan, Frantzia eta AEBetan, adibidez, jadanik erabiltzen dute. Baina Xuntak ez du erantzunik eman.

Hondartzetako petrolioa kentzeko babes produktuak ekoizten dituen Kanadako lantegi batek ere 10 tona material eskaini zituen: eskuzorro bereziak, maskarak, itsasorako arropak, botak, lanabesak... Ale bakoitza 8,34 euroren truke. Sustapen Ministerioko Zuzendaritza Nagusiak, baina, honela eskertu zuen eskaintza: «Garbiketa lanak azkenetan daude, eta ez dugu uste isuritakoak kostari nabarmen kalte egingo dionik» (azaroaren 30a).

*Prestige*-koek laguntza eskatuz deitu zuten egunean bertan, Itsasoko Zuzen-

daritza Nagusiko Lan Zuzendariak hamaika aldiz ohartarazi zuen —hamaika!— ez pizteko ontziaren motor operatiboak, mugimenduarekin kroskoko pitzadurak zabaltzeko arriskua baitzegoen.

Ontzia kostatik 100 itsas milia baino gehiago urruntzeko agindu zion zuzenean Gobernuo Presidentetzak Gobernuaren Galiziako Ordezkarari. Espainiak hiru garabi-itsasontzi besterik ez du, eta denen artean 6.200 zaldi batzen dituzte. Horien guztien potentzia ez zenez nahikoa ontzia urruntzeko, Gobernuaren Ordezkariek —meridianoak eta paraleloak nahasten dituen horrek— agindu zuen motor operatiboak pizteko eta ontzia 100 milia eramateko.

Alabaina, ontzia urruntzea ez zen posible izan —24 orduan 62 milia baino ez zituzten egin—, eta Txinako garabi-itsasontzi handi baten zain geratu ziren 26 orduan. Garabi hori Frantziako portu batean zegoen, eta 22.000 zaldiko potentzia zuen. Hego-hegomendebaldeko norabidean 260 km urrundu ahal izan zuten ontzia, Txinako garabi-itsasontziari, *Prestige*-ren motorrari eta espainiarrei esker.

Coruña Pilotuen Buruak eta Repsol findegiko zuzendariak hainbat gauza eskaini zituzten: findegiko dartsena, bi ontzi ama eta 30 ordu baino gutxiagoan *Prestige*-ko fuel-olioaren %81 ontziz aldatzeko prestatuta zeuden sei pantalan. Itsasora erregai ugari isurtzeko arriskua badago, ahal bada, ontzia arrada edo badian kokatu behar da, eta erregaiak ponpatu. Hori gomendatzen dute, zalantzarik gabe, bai itsas larrialdietarako Europako protokoloek, bai pareko egoeretako eskarmentuak. Baina Gobernuak espresuki debekatu zuen ontzia porturatzea. Aipatutako ekintza arrakastaz egin da 126 aldiz, baita itsasoak sei gradu baino gehiagoko indarra izanda ere.

Muxiatik bost milia baino gutxiagora eta Coruña Repsol findegitik zazpi ordu baino gutxiagora egon zen *Prestige*

ontzia. Horietako batera eramanez gero, gauza asko saihestu eta beste asko lortuko ziren: 36.000 tona baino gehiago ez ziren isuriko itsasoan, hondatutako kosta zatia 30 kilometro edo gutxiagora murriztuko zen, olatuen eraginez ez zen erregai zati txikiagotan egingo, eta ontzia onik aterako zen. Azken horrek, gainera, gertatutako istripuaren berri jakiten lagunduko zuen.

Honela dio Bernhard Bowlwies kontramaisuak, *Exon Valdes* hondoratu zenean Lanetarako Buru zenak, *El Mundo* egunkarian argitaratutako txosten batean: «... Burura etor daitezkeen artean irtenbiderik txarrena aukeratu zuten. Itsasoaren egoera eta meteorologia datuak aintzat hartuz gero, ontzia herrestan eramateak ondorio bakarra ekar zezakeen, eta hala ekarri du: ontzian zegoen erregai isuri, eta kosta guztian hedatzea».

Alemaniko aditu talde batzuk ere Muxiara iritsi ziren. Helburu bat zekarten: boluntarioei erakustea hondartzetako fuel-olioa nola bildu eta jasotzen den. Hala ere, iritsi eta hiru egun igaro arte ezin izan ziren irakasten hasi, Xuntak ez baitzuen inor nahi hondartzetan.

Duela egun batzuk, arrantzaleen kofradia batek boluntarioak eskatu zituen autotetan jarritako megafonoetatik. Vilagarcia, Cambados eta inguruko herrietan ibili ziren. Bada, egun hartan bertan, Xuntako Arrantza kontseilaria La2n agertu zen, boluntarioek behar ez zutelako esateko, traba baino ez zutela egingo eta.

Egun berean, goizeko 06:00etatik jardun zuten erregai biltzen Vigoko eta Cangasko itsasontziek. 13:00etan, baina, Raxoi presidenteordeak esan zuen fuel-olioa ez zela Rias Baixasetara iritsi. Ordu bete geroago, ordea, Xuntak arrantzatzea debekatu zuen itsasertz atlantiko osoan: Fisterratik Gardara.

Hauxe da egoera, zehatz-mehatz.

Erredakzioan itzulia

## zutabea

Juan Kruz Lakasta

### Lagun tximeleta

**L**aguna tximeletaren teoriak ari zait. Elkarrekin afaldu dugu, bere etxean. Azpizuna prestatu du, labean, beti bezain txukun. Nik, beti bezala, ardo beltza eramandut, Irache, erreserbakoa. Ohi bezala, gustura afaldu dugu, janari goxoa, ardo ona, lagunarteko solasaldia gozatuz. Gero, betiko tabernara jaitsi gara, betiko aulkietan eseri gara eta betiko kuba-libreak eskatu ditugu. Eta lagunak, beti bezala, afarian zinemas, literaturaz, politikaz mintzatu eta gero, kuba-librea ezpaineratu bezain pronto emakumez hasi zait.

Azken boladan zorigaiztoko dabil neska kontuetan. Baina guztia kasualitate hutsa dela azaltzen ari zait. Nesketan ez ezik, bizitzan ere guztia kasualitatearen ondorioa eida: bizitzaren sorrera kasualitate baten ondorioa izan zen, mundua kasualitatearen ondorioa da, Tananaribon tximeleta batek hegoa astintzeak euskal gatazkaren konponketa eragin dezake. Eta kasualitatearen eragina beste inon baino eraginkorragoa da gau giroan.

Lagunak dioenez, hurrengo tragoa zer tabernatan hartuko dugun erabakitzea bere bizitzako erabakirik garrantzitsuena izaten ahal da. Agian, alboko tabernan bere bizitzako emakumea dago. Beharbada, irlandarra da eta egun bakarra igarotzera etorri da Iruñera, eta elkar ezagutzen badute behin betiko elkarrekin biziko dira, baina guk alboko tabernara joan ordez plazakora joaten bagara, ez dute inoiz elkar ezagutuko. Nolanahi ere, gerta daiteke duela bospasei urtetik ikusten ez duen bere lehen neska-laguna plazako tabernan egotea, eta hain justu gaur, ez atzo ez eta bihar ere, gaur egungo mutil-lagunarekin krisian egotea, eta berarekin berri elkartu nahi izatea. Baina alboko tabernara joaten bagara ez du topatuko, eta bihar jada beranduegi izanen da.

Lagunak tartarrean segitzen du. Eta kontentitzen hasia naiz. Argi daukat Tananaribon tximeleta batek hegoa astintzen ez badu, betikoa gertatuko dela, tabernak ixteko ordura arte solasean, edanean, gauden aulkietan geratuko garela, eta laguna mozkorturik eta bakarrik joanen dela etxera, irlandarrarekin, lehen neska-lagunarekin, inongo neskekin elkartu gabe.

## seiko urrea

Mattin Irigoien



### Debatea demokrazia balitz

**I**ritzi-artikulu interesgarria atera digu Txomin Peillenek *Le Journal* egunkarian. Unanimismoaz ari zitzagun, eta zuzen den bezala, ongi josirik urratu zigun gure hainbat biltzarretan goxotasun kotsakor baten maskapean ohi den fazismo herrestari hori.

Oroitu naiz zer nolako asanbladetan ibili naizen azken urte laburretan. Luze, gauak dira izaten. Hor unanimismoa ez zen beste

gaitz bat dut ezagutu, kontra-izan-beharra zitekeen izatekotz. Asanblada moldeko euskal tatzako eta ezker usaineko elkarte horietaz naiz ari. Mugimendu hauek gatazka gogor batzuen bizitzera ekarriak dira, hutsetik sortuak, administrazioek kondenatuak, politikoen azpi-asmoen joka-zelai eta jendarteak gaizki ikusiak.

Kanpoko ekaitzak etxeokak sutondora hurbiltzen ditu. Militatzea lagun zirkulu bate-

an sartzea —hestea— da maiz. Eta dirua atzeman behar... Eta hautetsi edo administrazioari oldartu behar... Beti kexu, beti lanean. Badakizue ardiek nola egiten duten otsoa edo zakurraren mehatxua sendi dutenean? Inguruka hasten dira, bloke homogeno bat balira bezala.

Batzutan, otsoa ez hautemanik ere, inguruka aritzea da gure jokoa, otsoa, gure artean bilatuz orduan, inguruka segitzeko arrazoi bat izateko...

Hautuak binomio ximpletzaileetan ezartzeko onak dira —Bush-en gisa ongia eta gaizkia bereziz—: ametsa/errealitatea, erradikal-tasuna/saldukeria, sakrifizioa/futitukeria, gu/besteak, batzu pedagogia/euskara kontrajartzera heldu ziren horrela behin.

Talde fenomenoek eta norberak bere zimi-

noa beste(ar)en bizkarrera botatzeko duen fakultate ikaragarriak, joka-arauen eta helburuen lausotzeko ahala dute.

Denak ez dira berdinak. Gure lekutik gira mintzo, eta horrek interes eta ikusmolde bereziak jartzen dizkigu. Asanblada batean leku eta interes desberdineko jendeak direla (gure artean ere) onartzea, urrats garrantzitsuak lorteko, gaia kokatzeko, errespetua sortzeko...

«Alde/kontra» pareak bere zepoan sartzen gaitu itsutuki. Batetik, arazotik punpean erantzunera eramanez, kausen iturria bisitatu gabe, eta bestetik, tarrapataren menpe, beti ber erantzun moldeen deliberatzaera ekartzen baigaitu, usatuko kuadrotik kanpo bilatzeko denborarik ez utziz...

Borreroak biktima behar duen bezala, biktimak borreroa. Antifazistak fazismoa.